



KORONORIOGRAFIAKO ETA ANGIOPLASTIAKO INFORMAZIO-ORRIA

Koronariografia, edo bihotzeko kateterismoa, bihotzak nola funtzionatzen duen jakiteko eta bertan eta arteria koronarioetan egon daitezkeen lesioak ikusteko aukera ematen digun proba da.

Zertan datza?

Proba anestesia lokala erabiliz egiten da, eta ziztada egingo den eremua soilik lokartzen da.

Hodi fin eta malgu bat sartzen da besaurreko/eskumuturreko arteria batetik (bide erradiala) edo izterrondotik (bide femorala), anatomia eta beste inguruabar pertsonal batzuk kontuan hartuta, eta bihotzeraino eramaten da. Han, substantzia bat (kontrastea) injektatzen da, eta X izpien bidez ikus dezakegu.

Batzuetan, arteria koronarioak gaixorik egoten dira eta angioplastia egin behar izaten da.

Angioplastia koronarioa bere sintomak eragiten dituen lesioa dilatatzean datza, arteriaren barruan baloi bat puztuz. Batzuetan, gerta daiteke sare bat (STENT) jarri behar izatea, arteria berriro itxi ez dadin.

Proba amaitzean, kateterrak kenduko dira eta ziztadaren eremua konprimatuko da behar den denboran.

Nola prestatu behar dut probarako?

Beharrezkoa da proba baino gutxienez 6 ordu lehenago ezer ez jatea eta ez edatea. Gosariko ohiko medikazioa har dezakezu, ur pixka bat edanez.

Antikoagulatzaileak hartzen badituzu (tronboak edo koaguluak sortzea saihesten duen medikamentua), mediku-taldeak egun horietan nola hartu azalduko zizun.

Diabetesa baduzu, bete jarraibide hauek:

- Aurreko gauean: hartu ohiko medikazioa.
- Prozeduraren egunean: ez hartu diabetesaren aurkako pilularik gosarian.
- Ez jarri INTSULINA AZKARRIK prozedura baino lehen.
- Goizean intsulina erabiltzen baduzu, prozeduraren ONDOREN jarri.

Hortzordeak badituzu, harrera-solairuan sartzen zaren unean kendu beharko dituzu.

Audifonoak erabiltzen badituzu, izan itzazu jarrita, ondo komunikatu ahal izateko.

Nora jo behar dut ebakuntzaren egunean?

Joan zaitez Txagorritxuko Ospitaleko onarpen-zerbitzura. Beheko solairuan dago, sarreraren ondoan.

Handik, harrera-unitatera lagunduko dizute.

Nola egingo didate prozedura?

Ospitalizazio-unitatera iristean:

- Harreran ohe-atorra bat emango dizute, eta jantzi egin beharko duzu. Azpiko arropa eta objektu pertsonalak kentzea gomendatzen dizugu.
- Erizainak zainetako bide bat (kateter fin bat) jarriko dizu ezkerreko besoan, prozedurak irauten duen bitartean behar dituzun sendagaiak emateko edo lasaiago eta erlaxatuago egoteko.



Prozedura nola egiten den:

- Ohatilan etzango zaituzte, eta beharrezkoa denean soilik desestaltiko dizute gorputza.
- Prozedura osoan monitorizatuko zaituzte, hauen bidez:
 - Pegatina batzuk (elektrodoak), prozedura osoan, zure bihotzaren jardueraren erregistroa (elektrokardiograma) ikusteko.
 - Tentsio arteriala hartzeko mahuka bat.
 - Batzuetan, saturimetro bat atzamarrean, oxigeno-maila neurtzeko.
- Izara esteril batez estaltiko zaituzte, eta ziztada non egingo den soilik utziko da agerian.
- Anestesia lokala emango zaizu eremuan, prozedura mingarria izan ez dadin.

Prozeduraren iraupena aldakorra da, eta 4-6 ordu egon behar duzu ohean geldirik prozedura amaitu ondoren.

Zer egin behar dut gero?

Ebakuntzaren ondoren, gutxienez 6-8 ordu egongo zara ospitaleratuta, baina batzuetan luzatu egin behar izaten da.

Ezingo duzu jan prozedura amaitzen denetik 2 ordu igaro arte.

HURRENGO 2 edo 3 EGUNETAN, gomendagarria da ohiko lanean ez hastea, ahalegin bortitzik ez egitea eta pisurik ez hartzea. Eskumuturrean ziztatu bazaituzte, ez egin ariketa errepikakorrik.

Zaindu ziztada-eremua, eta izan ezazu lehor. Hainbat egunetan eremu horretan molestiak sentitzea NORMALA da.

KARDIOLOGIAKO TALDEAK ZURE EBAKUNTZAREN BIDEOA IKUSTEA PROPOSATZEN DIZU

1. KONEKTA ZAITEZ HEMEN:

<https://meduvipiberia.okast.tv>

Edo eskaneatu hurrengo QR kodea




2. IDENTIFIKA ZAITEZ HEMEN:

Helbide elektronikoa: cardio@txago.eus

Pasahitza: **Cardio 1009**

3. KONEKTATU BERRIRO zure telefonoaren KAMERA eta ESKANEATU zure EBAKUNTZARI dagokion bideoaren QR KODEA:



4. Zure EBAKUNTZARI dagokion bideoa berriro ikusi nahi duzun bakoitzean, azken QR KODEA eskaneatu besterik ez duzu egin behar.